

BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2018

BASQUE - LV2

VENDREDI 22 JUIN 2018

Séries **ES/S** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Série **L** Langue vivante obligatoire (LVO) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **4**

Série **L** LVO et langue vivante approfondie (LVA) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **8**

Séries **ST2S** et **STMG** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Séries **STI2D**, **STD2A**, **STL** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

ATTENTION

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa série :

Série **L** (LVA Y COMPRIS) : questionnaire page 3/4.

Séries **ES/S/STMG/ST2S/STI2D/STD2A/STL** : questionnaire page 4/4.

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

Barème appliqué pour la correction.

Compréhension	10 points
Expression personnelle	10 points

Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.

Ce sujet comporte 4 pages numérotées de 1/4 à 4/4.

Heroiak

Bihar heroien neurrikoa bilakatuko naiz (...), Ene neurriko heroi txikia, nehork ez duela jakinen, nik salbu eta aski zait.

5 Ostirala izanki, ez naiz joanen lanera eta abusatuko naiz ipar Baionako ostatu batean. Ondoko aulkira hurbilduko zait emazte bat. Gazterik higitua. Ezaguna egingen zait, behin baino gehiagotan gurutzaturik Baionako auzo desberdinetako ostatuen inguruan, zerbaiten eske edo beha. Ez dakit zein ibilbide izan duen. Ez naiz segur burutik biziki xuxen denik. Hasieran, ez diot atentzio gehiegirik emanen. Ondoko mahaian jarriko da, esku hoztuak igurtzi eta agurtuko nau. Erantzuteko burua altxatuz ohartuko naiz inguruko guziek begiratuko gaituztela. Gertatuko zait giroan zerbait pisu, isiltasun hori, auzoko 10 jende horiek denak pertsona miserable horri begira, epaituz, keinu bakoitza neurtuz. Batere ez sana. Holakoek nardatu ohi naute. Helduko da istantean zeinetan ene burua ikusiko dudana hortxetan jarriko, burges tipia, kizararekin buruz buru egunkaria hostokatzen. Eta orduan da gertatzen hasiko.

15 Aldi honetan, ez naiz egonen besoak dilindan, duela bi aste gertatu zen bezala. Orduan ez bainuen jakin zer egin, etsigarriki.(...)

Bihar goizean, ostatuko behakoa gainean sentitzean, ene baitan barna piztuko da betiko sentimendu hori: enpatia, erosotasunaren lotsa eta ondokoarenganako urrikia, miseriaren borrokatzearen beharra, injustiziaren ukoa. Hasiko naiz imajinatzen mila gauza eta horien artetik mintzatuko natzaio:

20 - Nahi duzu kafe bat?
- Bai, milesker. Milesker. Ebaki bat?
- Ebaki bat gehiago, otoi, lagun honentzat —manatuko dut, aulkitik altxa gabe ere, besoa luzatuz.

Hortik aitzina, ostatuko bitxikeria bilakatuko naiz ni. Berdin zait.

25 Gauzak zer diren, ezin izanen dut erreprimitu emazte ezezagunari galderak pausatzeko enbeia:

- Nondik zatoz? Hemengoa zara?
- Ez.
- Baduzu etxerik?
30 - Dependitzen du. (...)
- Nola duzu izena?
- Brigitte.

Eta berak segituko du, agortu gabe. Kontatuko didana egia ote denez ez zait inportako; aitor dezadan, nahiko nekagarria egingen zait momentu hori. (...)

35 Brigitte kalakari agorrezinari aipatuko diot badiela zerbitzuak laguntzeko. (...)

Hegalpera bilduko dut bihar, Baionako ZUP behealdean den zentro sozialera helduko dut eta han utziko. Badakit eskuarte onean utziko dudala. Nago ea zerbait lortuko ote duten: aterpe bat, artak. Ez dut segur aski sekulan jakinen. Ez nezake gehiagorik egin. Gutxiagorik, nekez. Poztuko, beteko nau ahalko dudana egiteak, hortik zenbait 40 egunetara berriz karrikan dabilela ikusiko badut ere.(...)

Baionak ez daki (2015) Heroiak, Bea SALABERRI testua moldaturik

QUESTIONNAIRE A L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SERIE L LVO & LVA
(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

I. ULERMENA : (10 puntu)

Les candidats de L LVO ne répondront pas aux questions 8 et 9.

1. Zergatik erraten du idazleak heroi bat bilakatuko dela bihar?
2. Bil itzazu testuan zehar Brigitte honi buruz emanak diren informazioak.
3. Zer izanen da ostatuko bezeroan jarrera Brigitte ikusten dutenean?
4. Zer sentitzen du idazleak Brigitte bezalako pertsonak aurkitzen ditutenean?
5. Zergatik "ostatuko bitxikeria" bilakatuko da idazlea?
6. Nora eramango du emaztea? Zergatik?
7. Uste al du idazleak Brigitten bizitza aldatuko dela gero?

Questions uniquement à l'attention des candidats de la série L (LVA)

8. Zer erran nahi du Bea Salaberryk heroi "txikia" bilakatuko dela idazten duelarik?
9. Bea Salaberrik idazten du "Eta orduan da gertatzen hasiko" (13. I). Zertaz mintzo da?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA: (10 puntu)

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

Pour les candidats de la série L-LVO :

1. Idazleak Brigitte konbentzitu nahi du hobe duela zerbitzu sozialetara joatea laguntza eske. Asma ezazu bi emazteen arteko elkarriketa 15 bat lerroz.
2. Idazleak erraten digu heroi txiki bat bilakatuko dela. Zer da, zure ustez, heroi bat? Denak izan ote gaitzke heroiak? Zure gogoetak idatziko dituzu 15 bat lerroz.

Pour les candidats de la série L-LVA :

1. Idazleak erraten digu heroi txiki bat bilakatuko dela. Zer da, zure ustez, heroi bat? Denak izan ote gaitzke heroiak? Zure gogoetak idatziko dituzu 15 bat lerroz.
2. Idazleak horrela dio azken esaldian: "Poztuko beteko nau ahalko dudana egiteak, hortik zenbait egunetara berriz karrikan dabilela ikusiko badut ere." Nola ulertzen duzu esaldi hau? Beste adibiderik ematen ahal duzu? Zure gogoetak idatziko dituzu 15 bat lerroz.

QUESTIONNAIRE A L'ATTENTION DES CANDIDATS DES SERIES ES, S, STMG, STI2D, STL, ST2S
--

I. ULERMENA : (10 puntu)

1. Zergatik erraten du idazleak heroi bat bilakatuko dela bihar?
2. Bil itzazu testuan zehar Brigitte honi buruz emanak den informazioa.
3. Zer izanen da ostatuko bezeroan jarrera Brigitte ikusten dutenean?
4. Zer sentitzen du idazleak Brigitte bezalako pertsonak aurkitzen ditutenean?
5. Zergatik "ostatuko bitxikeria" bilakatuko da idazlea?
6. Nora eramango du emaztea? Zergatik?
7. Uste al du idazleak Brigitten bizitza aldatuko dela gero?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA: (10 puntu)

Afin de respecter l'anonymat de votre copie, vous ne devez pas signer votre composition, citer votre nom, celui d'un camarade ou celui de votre établissement.

1. Idazleak Brigitte konbentzitu nahi du hobe duela zerbitzu sozialetara joatea laguntza eske. Asma ezazu bi emazteen arteko elkarriketa 15 bat lerroz.
2. XX. edo XXI. Mendeko pertsonaia historiko bat hauta ezazu eta idatzazu 15 lerroz zergatik gustatzen zaizun eta zergatik, zure ustez, heroia den.